

NEW TOPOGRAPHICS

33. aretoa 11/10/17–12/01/08

Laguntzaile: Terra Foundation for American Art

1975ean, New Yorkeko George Eastman House delakoak –oso erakunde ezaguna da nazioartean, argazki eta zinema arloan dituen artxibo garrantzitsuengatik– *New Topographics: Photographs of a Man-Altered Landscape* (Topografia Berriak: gizakiak eraldatutako paisaien argazkiak) erakusketa antolatu zuen. William Jenkins, XX. mendeko argazkigintzako kontserbatzaile albokoa, aritu zen komisario lanetan, eta erakusketak hamar artistaren 168 lan aurkeztu zituen: Robert Adams, Lewis Baltz, Bernd eta Hilla Becher, Joe Deal, Frank Gohlke, Nicholas Nixon, John Schott, Stephen Shore eta Henry Wessel, Jr. ziren aipatutako argazkilariak. Geroztik, euren irudiak erabat lotuta geratu dira paisaia ulertzeko moduaren aldaketa garrantzitsuari, argazkigintzako gai gisa eta gai sozial eta kultural gisa.

Erakusketa helburu apalekin egin zen, baina, hala ere, denborarekin, diziplina artistiko honen historiako funtsezko mugarrizko izatera heldu zen, erabat aldatu baitzituen paisaiaren generoaren oinarriak argazkigintza garaikidean. Eragina funtsezkoa izan zen Estatu Batuetan, baina are erabakigarriagoa izan zen Europan, non iraultza teknologikoaren garapen gero eta handiagoak eta iraultza horren ondorioek derrigorrez eraldatu baitzuten natura idealizatuaren ikuspegi erromantikoa. Argazkigintza berriak dokumentatu egiten du gizakiak naturaren gainean duen eragina, eta, gertakari hori idealizatu beharrean, beste modu batean begiratzera derrigortzen gaitu.

Garrantzi hori gorabehera, pertsona gutxik bisitatu ahal izan zuten *New Topographics* erakusketaren jatorrizko aurkezpena. Hori dela eta, Tucsoneko Unibertsitateko (Arizona, AEB) Center for Creative Photography delakoak erakusketa berreraikitzeke ekimena izan du orain, eta asmo horrek interes berezia dauka. 2009tik, erakusketa hau Estatu Batuak, Austria, Alemania, Frantzia eta Holandako zenbait egoitzatan ikusi ahal izan da, eta, orain, Bilboko Arte Ederren Museoa ere aurkeztuko da. Hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaierako Ipar Amerikako paisaia-argazkigintzaren berrikuntza estetikoa aztertzeke asmoz, bederatzi argazkilariren ehun argazki baino gehiago bildu dira, hau da, 1975eko jatorrizko erakusketarako aukeratutako lanen bi heren. George Eastman Housek eskuratu zituen garai hartan, eta lan horietako gehienak aipatutako erakundearen bildumakoak dira.

Irudi hauek paisaiaren kontzeptu berria definitu zuten, tradizio erromantikotik urrun eta naturak eta gizakiak industrializazioaren ostean izan duten harremanean oinarrituta. Joera horren eragina arte kontzeptuarekin, *land art* delakoan eta arkitekturan sumatzen da gaur egun, eta pentsa daiteke erabakigarria izan zela naturaren kontserbazioaren gaineko kontzientzia sozialaren sorreran ere.

Hamarkada hartan, Vietnameko gerrak eta utopiaren amaierak erabat markatu zituzten Estatu Batuak, eta argazki hauek une hartako errealitatea islatu zuten: telefono-kableak, karabanak, kale nagusiak, bulego-bloke anonimoetako aparkalekuak, bungalowak, motelak eta autobideak; New England eta Los Angelesko ikuspegi prosaikoak... hori guztia, ohiko xarma estetikorik gabe eta adierazkortasunaren mesedetan. Itxurazko neutraltasuna eta simulatutako objektibotasuna gorabehera, irudi hauek paisaia arrunt eta ahaztuei buruzko mezu adierazgarriak transmititzen dituzte.

Robert Adams (Estatu Batuak, 1937). Robert Adamsek Colorado estatuko Front Range eskualdeko argazkiak egin zituen bere ibilbidearen hasieran, 60ko hamarraldiaren amaieran, hain zuzen ere. 1969an, ekialdera joan zen, bere lanak George Eastman House museoaren zuzendari zen Beaumont Newhalli eta New Yorkeko Arte Modernoko Museoan (MoMA) argazki kontserbatzaile ziharduen John Szarkowskiri erakusteko helburuarekin. Handik bi urtera, taldeko erakusketa batean parte hartu zuen Emmet Gowinekin batera MoMA-n, eta 1973an Guggenheim Foundation eta National Endowment for the Arts (arteen nazio fundazioa, NEA) erakundeek bekak jaso zituen. Horren emaitza da *Mendebalde Berria* corpus zabala, formatu ertaineko kamera batekin (6 x 7 cm) egina. Corpus horretatik hogeit hamar irudi hautatu zituen William Jenkins komisarioak *Topografia Berriak* erakusketa osatzeko. *Mendebalde Berria* bilduman, giza garapenak paisaia izan duen eraginari aurre egiten dio Adamsek; hain zuzen ere, nerabezaroaz geroztik bizileku izan duen paisaiari egiten dio aurre. Ingurumena den bezala irudikatzen zereginari emana bazegoen –eta badago– ere, Adamsek baztertu egin zuen Jenkinsen ideia, alegia objektibotasunak agindutako zeregina izan zitekeenaren ideia; aitzitik, Adamsen ustez, jarrera hark saihestu egiten zituen paisaiaren genero artistikoaren aukera autobiografikoak eta metaforikoak.

Lewis Baltz (Estatu Batuak, 1945). Newport Beachen (Kalifornia) jaioa, Lewis Baltzek San Frantziskoko Arte Institutuan egin zituen ikasketak (1969) Los Angelesera itzuli aurretik, besteak beste, artista kontzeptualen eta instalazioetan espezializatuak ziren artisten lan aitzindariak erakarrita, hala nola Robert Irwin eta Barry Le Va. Aldi berean, New Yorken ere lortu zuen Baltzek nolabaiteko lekua. Bera izan zen Leo Castelli arte garaikideko arte salerosle aipagarriak ordeztutako lehenengo argazkilaria; 1971n haren “*Tract* urbanizazio bateko etxeak” lana erakutsi zuen Castellik. Urte hartan bertan, George Eastman House museoan izan zen Baltz, eta William Jenkins eta Joe Dealekin hizketan hasi zen buruan zebilkion ideia bati buruz, hain zuzen ere, eraikitako paisaiarekin zerikusia zuen erakusketa bat osatzeko ideiarekin buruz; ideia truke horrek hainbat urtez jarraitu zuen. “*Tract* urbanizazio bateko etxeak” 1972an erakutsi zen Eastman House museoan, Bernd eta Hilla Becherren “*Morfologiak eta eskultura anonimoak*” erakusketarekin batera. National Endowment for the Arts (NEA) agentziaren beka batek bultzatu zuen Baltzen proiektu berria: *Industrialde berriak Irvinetik gertu, Kalifornia*. Berrogeita bat argazki osatua, 1975ean erakutsi eta argitaratu zuen Castellik. Sail horretatik, Jenkinsek hogeit hamar irudi hautatu zituen *Topografia Berriak* bilduman sartzeko.

Bernd eta Hilla Becher (Alemania, 1931-2007 eta 1934-). Kunstakademie Dusseldorf akademian ezagutu zuten elkar, pintura ikasten ari zirela. 1957an hasi ziren argazkilaritzaren alorrean lankidetzan, eta hasieratik beretik topatu zuten biei interesa piztuko zien gai bat: XX. mendeko arkitektura industrialak. Elkarrekin orubeak eta lursailak bilatu eta ikertzeaz gainera, 8 x 10 hazbeteko kamera manipulatzeko lana partekatu zuten beren landa lanetan, eta oso kopia landuak egin zituzten, gela ilunean. Irudikatutako eraikinei buruzko informazio guztia helarazteko, aurkezpen tipologikoa egitea hautatu zuten: xaretetan erakutsitako ikuspegi ugari, perspektiba sendo batetik. Hasieran, 1963. urteaz geroztik, Alemanian erakutsi zuten beren lana; edonola ere, 1970ean egin ziren ezagun Estatu Batuetan, Anonyme Skulpturen liburua argitaratu zenean. Oso litekeena da William Jenkinsek 1972an George Eastman Housen ikusi izana haren adibideak, eta baita Sonnabend galerian ere (New York), eredu monografikoko sail batean; azken horrek zazpi tipologia utzi zituen *Topografia Berriak* osatzeko. 1974ko hilabete batzuetan, Bechertarrek New Jersey, Michigan, Pennsylvania eta Ontario hegoaldeko (Kanada) hainbat orube bisitatu zituzten, eta hainbat motibori atera zizkieten argazkiak, besteak beste, ikatza xehatzeko lantegi izugarriak eta egurrezko egitura apalei.

Joe Deal (Estatu Batuak, 1947). Deal 1970ean joan zen Rochesterrera, Kansas Cityko Arte Institutuan lizentzia lortu ondoren. George Eastman Housen zinpeko begirale gisa lan egin zuen, Vietnamgo gerrara joatea saihestu nahi zuten kontzientzia eragozleentzako ordezkari zerbitzu gisa balio baitzion. Argazki lanekin jarraitu zuen, eta 35 mm-ko kamera utzi eta 2 1/4 hazbeteko formatu karratuko kamera bat erabiltzen hasi zen. William Jenkins komisarioa ezagutu zuen, 1971n museoko plantillan sartu zena. Deal eta Jenkins argazkilaritza garaikideari eta gizakiaren eraikuntzek eta eraikinek aldatutako ingurumenari buruzko erakusketa bat osatzeko ideia lantzen hasi ziren: *Tipografia Berriak*. Deal, bere argazkilaritza lanetan aurrera egiteko asmoz, Mexiko Berriko Unibertsitateko Arte Ederretako *master* programa batean sartu zen, Albuquerque hirian; bertan, urbanizazioen hainbat ikuspegi izenbururik gaberen saila osatu zuen, 1975eko erakusketan erakutsi zirenak. 1974an Deal Eastman Housera itzuli zenean, erakusketen zuzendari izendatu zuten, eta Jenkinsekin batera *Topografia Berriak* proiektuari buruzko lanari ekin zion berriro ere. Dealek artista gisa ere parte hartu zuen, eta erakusketaren katalogoa diseinatu eta muntatu zuen.

Frank Gohlke (Estatu Batuak, 1942). Yaleko Unibertsitatean ingeles literatura ikasten hasi bazen ere, Walker Evansen babespean barneratu zen lehenengo argazkilaritzaren munduan, eta Paul Caponigroren babespean gero. 1971n argazkilaritza irakatsi zuen Vermonten, George Eastman Housek lehenengo aldiz bere lanak eskuratu zituenean. Urte hartan bertan, Gohlke Minneapolisera joan zen. Han, Estatu Batuetako mendebaldeko erdialdean eta herrialdearen mutur batetik bestera errepidez egindako bidaietan, uste osoa hartu zuen –irakurtzen hasia zen paisaiaren azterketa kulturalari buruzko testuekin bat eginez– ezin uler litekeela egitura bat paisaia ulertu gabe, eta alderantziz, ezin uler litekeela paisaia gizakiaren kulturari begiratu gabe. Formatu karratuko 2 1/4 hazbeteko kamera bat erabili zuen aleen jasogailuen argazki-ikerketak luze bat egiteko; William Jenkinsek *Topografia Berriak* bildumarako hartutako lanak, ordea, ez dira ez sail horretakoak

ez ideia horrekin osatutako beste batekoak. Oro har, iparramerikar Mendebaldeko eta Mendebalde erdialdeko eguneroko ezaugarriak erakusten dituzte.

Nicholas Nixon (Estatu Batuak, 1947). Nicholas Nixonek artean ikasle zela ekin zion argazkilaritzari Ann Arborren (Michigan). 1971n Minneapolisera aldatu zen, eta han ikasi zuen 8 x 10 hazbeteko formatu handiko kamera panoramiko bat erabiltzen, eta han egin zituen bere inguruko arkitekturaren barrualdeen zein kanpoaldean ikuspegiak. 1973-74. urtean norabidez aldatu eta Albuquerquea joan zen, Mexiko Berriko Unibertsitatean Arte Ederretako masterra egiteko asmoz. Batzuetan, Joe Deal izeneko ikasle batekin lankidetzan, basamortuko paisaiari egin zizkion argazkiak; eta tesi bat ere idatzi zuen, izenburu honekin: "Ikuspegi ironikoa XX. mendeko argazkilaritzan". 1975eko maiatzean, Nixon Bostonera joan zen, eta han egin zituen *Topografia Berriak* corpusean erakusten diren hiriko ikuspegiak. kontaktu bidezko kopia hauek XIX. mendeko argazkilaritzaren tradizioak aipatzen dituzte, ikuspuntu goratua dutela eta xehetasun deskriptiboan sakontasunaz. Nixonek Bostongo ikuspegietan bere buruari ezarri zion zeregina zaharraren eta berriaren arteko elkarkidetzan islatzea izan zen, hiri espazioaren konplexutasuna islatzeaz gainera.

John Schott (Estatu Batuak, 1944). John Schotti, Nicholas Nixoni bezalaxe, Michigango Unibertsitatean ikasten ari zela sortu zitzaion argazkilaritzarekiko interesa. Argazkiak egiteaz gainera, argazkilaritzaren historiari buruzko ikastaroak prestatzen ditu, eta oso hurbiletik jarraitzen die arte, teoria eta kritika garaikidearen eremuan sortzen diren joera berriei. 8 x 10 hazbeteko formatu handiko kamera panoramiko bat erabiltzearen erabakia kontraesanez bete delako eman dezake, Ann Arborren eta inguruetan bilatzen zituen gai hutsalak eta ez oso erakargarriak direla eta. Hala eta guztiz ere, nahita egin zuen hautaketa hori; izan ere, artistak "adierazkortasunaren kontrako" irudiak sortu nahi zituen, bat-batekoak ez ziren irudiak, behaketa geldi eta lasaitik sortzen zirenak. Schottek aipamen ironikoaren eta deskribapen pasiboaren arteko oreka bilatzen du, William Jenkinsek *Topografia Berriak* corpusean sartu zituen Route 66 mitikoko moteleko buruzko sailean (1973). Eskualdeko eraikin mota baten azterketa tipologikoa izanik, sailak Ed Ruscha artistaren lanari buruzko aipamenak eta Robert Venturi, Denise Scott Brown eta Steven Izenourrek *Las Vegasetik ikastea* testuan azaldutako arkitektura "itsusi eta arruntaren" teorietan buruzkoak egiten ditu.

Stephen Shore (Estatu Batuak, 1947). 1971n, hogeita bost urte zituela, Shorek erakusketa indibiduala egitea lortu zuen New Yorkeko Metropolitan Museum of Art museoan. Geroago, utzi egin zuen kontzeptuari begirako argazkilaritza, eta modu komertzialean prozesatutako argazki sail batera igaro zen (Amerikar gainazala izenburuduna), 1974/75 urteaz geroztik herrialde osoko errepideetan zeharreko bidaietan behatutako eszenak erregistratzeko formatu ertaineko eta formatu handiko kamerak erabiltzen hasi aurretik. Argazki horiek eguneroko gaiak lantzen dituzte, baina Shorek "Ezohiko lekuak" izenburua jarri zien, argiak eta begiradak – argazkilaritzaren oinarriko osagaiak – etorkizun gutxienerako lekuak eta objektuak eralda ditzaketela iradokiz. *Topografia Berriak* lanerako, Jenkinsek Estatu Batuetan eta Kanadan egindako hainbat irudi hautatu zituen, batez ere era

guztietako kaleen irudiak: hautsez estalitako bidegurutzeak, itzalez betetako kaleak, auto ilarez betetako kaleak. 1975eko erakusketak hogeit hamar kopia biltzen ditu, 8 x 10 hazbeteko kontaktu kromogeniko bidezkoak. Kopia horietako hamar George Eastman House museoak eskuratu zituen

Henry Wessel, Jr. (Estatu Batuak, 1942). Henry Wessel, Jr. argazkilariari Pennsylvaniako Estatuko unibertsitatean psikologia ikasten ari zela sortu zitzaion argazkilaritzarekiko interesa. Argazki artistikoak egiten zituzten artista ospetsuek erakarrita beharbada, hala nola Walker Evans, edo bere amak ondasun higiezinak egindako argazkiek erakarrita, Wesselek berehala jaso zuen Nathan Lyonsen babesa, Rochesterreko Ikasketen Bidualen Tailerrean, eta baita John Szarkowskirena ere (New Yorkeko Arte Modernoko Museoa, MoMA). 1971n MoMAk erakusketa indibiduala antolatu zion, Wesselek aurreko urtean Guggenheimen beka bat irabazi ondoren, Wesselek berak "Estatu Batuetako autopisten eta alboko paisaien argazki dokumentazioa" hitzez deskribatutako proiektu bati esker. Dirua eskuan zuela, Kaliforniara aldatu zen berehala, argiak erakarrita, eta herrialdearen Mendebaldeko eta hego-mendebaldeko errepideak aztertzen hasi zen. Garai hartan, bat-bateko argazkian eta nagusi zen estetikari lotuan oinarritzen zen, eta, sarri askotan, Wessel irudi soil eta estatikoagoak lantzeko gai izan zen. Ikuspegi hori oso nabarmena da Jenkinsek *Topografia Berriak* bildumarako hartutako hogeita bat konposizio urbanoek osatutako sail zorrotz batean. Wesselek, bidegurutzeetan, errepide bazterretan edo balkoietan jarrita, paisaia bat balira bezala erakusten ditu oso ondo zaindutako leihoetako landare ontziak, palmondo batzuen itzal nabarmenak eta belar txarrak. Arretaren eta axolagabekeriaren nahasketa arbitrario batek ezaugarritzen ditu bineta uniforme baina idiosinkrasiko hauek.